

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Hasteko, hornitzaile batzuk behar ditugu produktuaren produkzioa aurrera eraman ahal izateko. Horretarako, herrialde azpigaratuetakoa biztanleria aktiboari joko diogu. Bertako eskulanak egiten dituen enpresa batekin kolaboratuko dugu, guk emango diegun lehengaiak eralda ditzaten, dena kostu baxu batekin lortuko ditugu eta haiek batazbesteko soldata jasoko dute. Egurrezko zepilloak probedore bati erosiko dizkiogunez, honekin akordio bat egingo dugu aurrera atera dezagun.

Horrez gain, beste probedore batekin hortzetako pasta erosteko ere beste akordio bat egingo dugu. Produktuaren produkzioa amaitzen denean, Indiako fabrikatik, gure Espainiako fabrikara iritsiko dira, produktua enpaketatuta. Ondoren, Correos-ekin beste akordio bat sinatuko dugu, bezero indibidualei errazago irits dakiekelako paketea, eta guri merkeago aterako zaigu paketeak zabaltzea

Beste alde batetik, bazkideen sareei dagokionez, edozein hegazkin konpainiarekin akordio bat egingo dugu, bidai luzeetan gure produktua erabil dezaten eta guk publizitatea irabazi dezagun haiek dirua idabazten duten bitartean. Horrez gain, sare sozialetako “influencerrak” gure bazkide izango dira, haiek ere, produktua promozionatzeagatik, portzentai bat irabaziko dute.